

FORO ERREGULARRAREN BILERA: PLANAREN HEDAPENA

BILBO - 2019ko APIRILAREN 10a

Gai-zerrenda	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ekintza Planaren betearazpena: balorazio orokorra eta konpromisoen deskargua 2. Ekarpenak eta iritziak 3. Informazioa 4. Hurrengo urratsak
Iraupena	16:30 - 18:30

ERAKUNDEA	PERTSONA	BERTAN
Eusko Jaurlaritza	Luis Petrikorena - Gobernu Irekiaren zuzendaria	BAI
Eusko Jaurlaritza	Jon Olaizola – Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako komunikazioen arduraduna	
Eusko Jaurlaritza	Javier Bikandi - Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria	BAI
Arabako Foru Aldundia	Nekane Zeberio - Ahalduen Nagusiaren Kabineteko zuzendaria	EZ
Arabako Foru Aldundia	Arrate Arias López de la Calle - Gardentasun eta Partaidetzako teknikaria	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	Leyre Vitorica - Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusia	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Joseba Muxika - Herritarren Partaidetzako zuzendaria	EZ
Gipuzkoako Foru Aldundia	Goizeder Manotas - Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazioaren Gizarterako Sistemen zuzendaria	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Haritz Ugarte – Modernizazio Zerbitzuko burua	BAI
Bilboko Udala	Gotzone Zaldunbide - Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutiak Arloko zinegotzi eskuordetua	BAI
Donostiako Udala	Edorta Azpiazu - Lehendakaritzako zuzendaria	BAI
Gasteizko Udala	Vale Tena - Alkatetzako aholkularia	EZ
Eudel	Roberto Cañon - Eudeleko antolaketako burua	EZ
Innobasque	Gotzon Bernaola - Berrikuntza Publikoko zuzendaria	BAI
Ibatuz	Antxon Gallego	BAI
Mestiza elkarte	Ana Molina	BAI
Osoigo	Eneko Agirre	EZ
Emakumeen Kontseilua	Arantza Otaolea	BAI
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Maialen Olabe - <i>Burua</i>	EZ

Sareen Sarea	Mikel Barturen	BAI
Gasteizko kontzejuak	Miren Fernández de Landa	EZ
Idazkaritza teknikoa	Koldobike Uriarte - <i>proiektuaren arduradun teknikoa</i> Goizalde Atxutegi - <i>Innobasque-ren proiektuen arduraduna</i>	

1. EKINTZA PLANAREN BETEARAZPENA

Foro Erregularreko kideei aurretik bidalitako aurkezpena erreferentziatzat hartuta, honako hauek azpimarratu dira:

BALORAZIO OROKORRA

Tokiko ebaluatzailea (OGPk hautatua) Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuaren Zentroko taldea da. OGPren ebaluaziorako metodologiari (IRM) jarraikiz, maiatzean planaren diseinuaren ebaluaziorari buruzko txostena aurkeztuko dute. Ebidentziak (web gordailua) baloratu ez ezik, talde ebaluatzaileak elkarrizketak egin ditu honako hauekin:

- Plan osoaren buruzagitza eta ardura teknikoa dituzten pertsonekin.
- Gutxienez konpromisoetan buruzagitza daukaten erakundeetako bateko arduradun tekniko edo politikoeekin.
- Foro Erregularreko kideekin.

Foro Erregularreko kideek eskatuta, talde ebaluatzaileak azaldu du elkarrizketatutako pertsonak idazkaritza teknikoari informazioa eskatu ondoren hautatu dituztela eta parekidetasun-baldintzak bete direla.

Planaren implementazioa dela eta (konpromisoen arabeko taldekako egitura), adierazi dute proposatzen den gobernantza-ereduak gehiago daukala elkarren arteko kudeaketatik irekiera-itxieratik baino. Eredu hau planaren ezaugarri bereizgarria izan daiteke, baina baliteke implementaziorako eragozpena ere izatea. Konpromiso guztietan behar dira irekialdiak, eta ia konpromiso guztietan lineako tresnak erabiltzen ari gara irekiera lortzeko. Batetik, nekeza da konpromiso-taldeetan bertaratuta parte hartzen ez duten pertsonak erakartzea; bestetik, ez dugu nahi pertsona batzuk “gainezka” egotea hainbat konpromiso aberasteko eta egiaztatzeko bilkurekin (izan ere, OGP planaren datu-basekoei ez ezik, erakunde bakoitzak bere datu-basekoei ere bidaltzen dizkie planean parte hartzeko aukerak).

Nolanahi ere, ohartu gara ezen, ahaleginak egin arren, hobeto koordinatu behar gara batera gerta ez daitezen hainbat konpromisotako bilkura presentzialak. Dena den, erakunde-oinarri sendoarekin ari gara lanean eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak handia da.

Foru eta udal hauteskundeak direla eta, erakundeen buruzagitzan egin beharreko fase pilotuetan egingo dira, egun bertsuetan. Beraz, konpromisoak informazioa murriztuta dagoen aldi batean itxi beharko dira, eta gutxienez hilabete egongo gara geldirik. Gainera, legegaldien itxiera ere gertatuko da. Fase pilotua duten konpromiso guztietan lanean ari dira eragozpen hori gaitzetzeko.

Jarraian konpromiso bakoitzaren deskargua aurkeztuko da (aurkezpenean adierazitako informazioa osatzen du):

#K1 – KONTUAK EMATEA:

Buruzagiak: Eusko Jaurlaritza - Gobernu Irekiaren Zuzendaritza; Bizkaiko Foru Aldundia - Behatokia

Galde-sorta bat bidaliko da kontu-ematearen inguruan prestatu den esparru kontzeptuala zehazteko. Hauxe da helburua: EAEko udal berriak eraturakoan, aurrera egitea konpromisoa berekin lantzen, batez ere arreta emanez kontuak eman behar dituztenean sortzen zaizkien arazoei, udalerrien tamaina kontuan hartuz.

Kontuen berri emateko tresna bat lortzeaz gainera, konpromiso honek erakundeei lagundu behar die beren agintaldiko planak antolatuta lantzeko eta prestatzeko, azken helburua herritarrei kontuak ematea dela. Eta horretarako ezinbestekoa da egitura komun batek gutxieneko kontu-ematea bermatzea.

Garrantzitsua izango da udal txikien parte hartzea diseinuan, horrela errazago gauzatu ahal izango baita konpromisoa; emaitza zehatza eta soila izan behar da, dagoeneko kontu-emateko esparrua aurreratuta daukaten erakundeak ez eragozteko.

Deskarguari buruzko oharra:

K1 konpromisoan arrakasta handia izango litzateke udalerrri txikietara heltzea, handiek beren baliabideak daukate eta.

ESTEKA: MUGARRIEN ETA SORTUTAKO DOKUMENTUEN AURRERAPENA

#K2 – OPEN DATA

Buruzagiak: Eusko Jaurlaritza – Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza; Bizkaiko Foru Aldundia – Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza

Konpromiso honetan parte-hartzea handia da. Lehenbizi erakundearteko taldea eratu zen, eta gero konpromiso-taldea; taldean gizarte zibileko entitateak ere aritu dira, nahiz eta gaia teknikoa izan.

Datu publikoak zabaltzen lan egiten duen kanpoko enpresa bat kontratatu da eta Teams bidez linean lan egiteko esparrua sortu da, bilkuren artean lan egin ahal izateko. Erronketako bat da dokumentu teknikoak herritarrek ulertzeko modukoak izatea.

Orain arte identifikatu nahi izan da zer eskatzen duten herritarrek datu irekien inguruan. Inkesta bat egin da eta 600 herritarrek baino gehiagok eta gizarte zibileko 200 entitatek baino gehiagok erantzun dute (erantzunak emanda datozen galderak baino informazio interesgarri gehiago eman dute erantzuna askea den galderak). Inkestek agerian ipini dituzten herritarren beharrezak eta eskaerak osatzeko, erakundeen postontziak aztertu dira (informazio-eskaerak) eta nazioarteko prospekzio-agiriak bildu dira, herritarren eskaeren ikuspegi zabalagoa edukitzeko.

Herritarren eskaeren irizpideari honako hauek gehitu zaizkio lehentasuneko arloak zehazteko: erakundearteko lankidetzak, arloko datuak herritarren eskura izatea, eta nazioarteko erreferenteak egotea arloko datuen katalogazioan.

Irizpide horiek uztartuta lehentasuneko bost ardatz hauek eratu dira datuak zabaltzeko zerbitzuak sortzeko:

- Ingurumenaren kalitatea: ura, airea, hondakinak, zaratak...
- Mugikortasun jasangarria: trafikoa, aparkaleku publikoak, bizikleta-zerbitzua...
- Agendak: kulturalak eta administratiboak.
- Kirolak eta ariketa fisikoak: ekipamenduak, jarduerak...
- Kontuak ematea: aurrekontua, hitzarmena, diru-laguntzak...

Laster prest egongo da aditu-dokumentua, azaltzen duena nondik sortu diren lehentasunak eta zer irizpide aplikatu den lehentasunok ezartzeko. Gero, hori osatzeko, beste dokumentu bat egingo da prozesuari buruz. Orobat, konpromiso honetako lanen azken emaitza modura (sortzen diren zerbitzuez gainera) datu irekien euskal ereduari buruzko dokumentua egingo da (pilotuen ondoren nola egin den lan aztertuko dute eta lankidetzan datuak herritarrentzat zabalik edukitzeko modurik eraginkorrena zein den erabakiko dute).

Beraz, konpromisoa datuak irekitzeko fasean sartzen ari da, eta horregatik enpresa bat kontratatzeko plegua prestatzen ari dira. Konpromiso-taldearekin egiten diren bilkura presentzialak murriztuko dituzte; aurrerantzean une kritikoetan baino ez dira bilduko. Beraz, hemendik aurrera ahaleginen ardatza arlo tekniko eta instituzionala izango da, datuak herritarren eskura daudela bermatzeko. Uste dute konpromiso-taldeak gehiago hartuko duela parte zerbitzuak diseinatzeko fasean. Gainera, foro bat irekiko da hainbat gairi buruzko ekarpenak jasotzeko: erabilgarritasuna, irisgarritasuna eta abar.

Deskarguari buruzko oharra:

Galdetu dute ea zer ondorio daukan katalogatzeko irizpidea aldatzeak (nazioarteko erreferenteak). Erantzuna izan da nazioarteko estandarrez hitz egiteak berekin dakarrela datuak kategorizatuta eta normalizatuta daudela onartzea. Erakundeen datuak elkarri lotuko bazaizkio, ezinbestekoa da erakundeak lehenbizi beren artean ulertzeko gauza izatea, eta horretarako behar-beharrezkoak dira nazioarteko erreferenteak.

ESTEKA: MUGARRIEN ETA SORTUTAKO DOKUMENTUEN AURRERAPENA

#K3 –HERRITARREN PARTE-HARTZEA BERRITZEKO I-LAB PROIEKTUA

Buruzagiak: Eusko Jaurlaritza – Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza; Gipuzkoako Foru Aldundia – Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza; Innobasque

Konpromiso-taldea buru-belarri ari da lanean gauzak zehaztu nahian. I-lab proiektuaren kontzeptualizazioa prozesu irekia da, gorabehera ugari askoren arteko hausnarketa, eta horren ondorioz atzerapentxoak gertatu da ezarritako mugarren zehaztapenean. Nolanahi ere, kontzeptualizazioari buruzko txostenak eginda daude: jardun onak mapatu dira eta iLab-aren lehen zirriborroa egin da mapaz eta konpromiso-taldearen proposamenez baliatuz. OGPren jarraibideak aintzat hartuta, mapatze-lanetan transferentzia hartu da ardatz, jardun onen bilketa alde batera utzita.

Bi enpresa kontratatu dira konpromiso hau hedatzeko, eta lankidetzan ari dira egiteko horretan. Batak bi egiteko dauzka: batetik, taldea dinamizatzea (taldeko kideen arteko sorkuntza-prozesua zaintzea); bestetik, iLab-en gobernanzarako eredia zehaztea; bestearen ardura iLab-en kontzeptualizazioa da (konpromiso-taldean egindako lana eta nazioarteko mapa egiteko lanak erreferentetzat hartuta).

Foro irekia sortu nahi da (ekaina aldera) eta maiatzean proiektu pilotuei buruzko lineako formularioa abiaraziko da. Formularioaren bidez herritarren ekarpenak bildu nahi dira honako gai hauei buruz: zer arlotan nahi duten berritzea parte-hartzea, zer irizpide uste duten aplikatu behar direla pilotuak hautatzeko, eta, azkenik, pilotuen gaineko proposamenak.

Azkenik, Foro Erregularrari jakinarazi diote bilera bat egin dela 3. konpromisoko (iLab) eta 4. konpromisoko (open eskola) buruzagiekin eta hornitzaileekin, bikoiztasunik izan ez dadin eta edukiak bateratzeko.

Deskarguari buruzko oharra:

Esan da eztabaidarik handienak konpromiso-taldean izan direla, seguruenik ere, kontzeptuen aldetik konplexuena da eta. Eztabaidetan iritziak geroz eta bateratuago egon dira (gutxi gorabehera), baina ikustekoa izango da nola biltzen den bigarren kontzeptualizazio-ereduan konpromiso-taldek apirilean egin zuen azken bileran eztabaidatu zena.

Eskatu da hobeto azaltzeko zertan ari diren lanean iLab proiektuan:

- iLab sarea da; ez da berrikuntza esparru bakarra. Haren helburuak parte-hartzearen arloko berrikuntza aktibatzea eta konektatzea dira.
- Lau egiteko zehaztu dira (intentsitatea finkatzeko dago): prospekzioa, esperimentazioa, bidelaguntza, transferentzia.
- Kontzeptualizazioa osatzeko, azken bilkurako ekarpenak jaso behar dira; hori egin ondoren gobernantza-eredua baino ez litzateke geratuko finkatzeke: nortzuk dauden sarean eta nola aritzen diren bertan, sarean ikasten bakarrik edo egiten bakarrik jardun daitekeen, nola bermatu transferentzia eta abar.

Horren ildotik, garrantzitsua da:

- Kontzeptualizazioan argi uztea zer balio (berrikuntzarako baliabideak) eduki dezakeen sare honek herritarren parte-hartzea berritzeko prozesua abiarazi nahi duten agenteentzat: zer eskainiko dien iLab-ek arlo batean (haurrak, osasuna, immigrazioa...) herritarren parte-hartzea berritzeko proposamena duten agenteei.
- Kontzeptualizazioaren edukiak azaltzeko testuak ulerterrazagoak izatea herritarrentzat. Hori dela eta, azaldu da kontratatu diren enpresetako bat elkarren arteko sorkuntza-prozesuari buruzko errelatua prestatzen ari dela eta hortik jo lezakeela; dena den, laguntza-agiri errazak sortu behar ote diren aztertuko da.

Mapatzea dela eta, emaitzengatik galdetuko da. Azaldu da ez dela aurkitu % 100ean transferitzeko moduko jardunik, baina kontuan hartzeko moduko esperientziak bai.

[ESTEKA: MUGARRIEN ETA SORTUTAKO DOKUMENTUEN AURRERAPENA](#)

#K4 – OPEN ESKOLA, herritarrentzako eskola

Buruzagiak: Arabako Foru Aldundia – Ahalduen Nagusiaren Kabinetea; Gasteizko Udala

Konpromiso-taldeko kideak asko eta askotarikoak ari dira; orain arte bi lan-bilera eduki dituzte. Lehenengoan kategoriak landu ziren (open eskolan zer elementu sartu behar diren zehaztea zen xedea) eta mapa egin da lan horren arabera. Otsailean beste bilera bat egin zen open eskolaren gidaren zirriborroa egiaztatzeko. Horren ildotik, konpromiso-taldeak eskatu zuen bilkura presentzialen arteko aldietan gertatzen diren aurrerapenen berri emateko aurrerantzean.

Eredua ezartzeko hiru esperientzia pilotu itxita dituzte eta erakundeen konpromisoa lortu dute proiektua Bilbon, Tolosan eta Añanako Kuadrillan abiarazteko. Tamaina desberdineko bi udalerrri eta kuadrilla bat hautatu dituzte, eredu ondo egiaztatu ahal izateko. Gainera, gidaren irizpideen aurkezpena egiteko asmoa dute, bai eta modu irekian egiaztatzeko ere, hura aberasteko, lan-prozesuaren berri elkarri emateko eta abar. Esan dute K3-rekin lankidetzan egin daitekeela.

Deskarguari buruzko oharra:

Galdetu dute ea norainokoa den benetan 3. eta 4. konpromisoen arteko bateratzea. Hasieran konpromiso bat baino ez zegoen, eta bien artean sinergia handiagoak egongo zirela uste zen, baina, bakoitzean nolako produktuak ari diren lantzen ikusirik, ez dirudi hala gertatzen ari denik. Horren ildotik, azpimarratu da bi konpromisoen abiaburuak desberdinak direla: K4 konpromisoak erreferentziako eredu dauka –Gasteizko herritarrentzako eskola– eta K3 konpromisoan elkarren arteko sorkuntzari ekin diote eta ondorioz iLab proiektuari sare itxura ezarri diote. Nolanahi ere, bi taldeak koordinatuta ari dira lanean.

[ESTEKA: MUGARRIEN ETA SORTUTAKO DOKUMENTUEN AURRERAPENA](#)

#K5 – INTEGRITATEAREN EUSKAL SISTEMA

Buruzagia: Gipuzkoako Foru Aldundia – Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazioaren Gizarterako Sistemen Zuzendaritza

Konpromiso-taldearen bileretako asistentzia ona da (18-20 pertsona), eta orain arteko ekarpenak oso onak izan dira. Lurraldearen mapa egin zuten (abiagunea zertan zen jakiteko) eta gero mundu osoko jardun onen analisi batekin osatu dute, aurrera egiteko ildoak finkatu nahian. Analisi gurutzatu hori abiaburutzat hartuta (zer egiten dugun eta zer egin dezakegun) etika-sistema baten printzipioen, balioen eta elementuen zirriborroa egin da. Gainera, galde-sorta bat ipini dute linean (200 erantzun baino gehiago jaso dituzte) eta hiru bilkura presentzial egin dituzte EAEko hiru hiriburuetan jasotako erantzunak aztertzeko. Eredua laburra eta bisuala da, parte hartzeko prozesua errazteko.

Ereduko elementu hauek egiaztatu eta aberastu dira:

- Eredua oinarrian dauden integritatearen printzipioak eta balioak. Kategorizazioa egin da, eta parte hartzeko prozesuan (inkesta eta bilkura presentzialak) aztertu da zergatik egin den egin den moduan eta printzipiorik eta baliorik egokienak zehaztu dira eta beren arteko lehentasunak ezarri dira. Beraz, arloak egiaztatu dira eta printzipio eta balio garrantzitsuenak aztertu dira.

- Printzipio eta balio horiek abiaburutzat hartuta, ereduaren bigarren atalean integritatearen euskal sisteman aplikatuko diren kudeaketa-elementuak finkatzen dira. Bost dira:
 - Kodeak, arauak eta eskuliburuak
 - Berme-organoa sortzea (sortu edo badagoen bati atxiki)
 - Galderak, salaketak eta abar egiteko kanala sortzea (sortu edo badagoen bati atxiki)
 - Prestakuntzako eta hedakuntzako jarduerak
 - Neurketa
- Azkenik, erakundeak koordinatzeko esparrua sortzea, honako hauek sustatzeko: analisia, ikerketa, prestakuntzako produktuen sorkuntza...

Gainera, parte hartzeko prozesuan argitu nahi izan da zer arlotan uste duten herritarrek izan behar liratekeela indartsuen erakundeen etika eta integritatea.

Konpromiso-taldea maiztean da biltzeko, parte hartzeko prozesuan bildu diren ekarpenak proiektuan txertatzeko. Gainera, prozesuaren itzulera-dokumentua ere egingo dute, eta bertan zehaztuko dute zein ekarpen hartuko den aintzat eta zein ez. Hurrengo faseetan, konpromisofitxan agertzen den moduan, eredu onartuko da eta pilotuak abiaraziko dira. Seguruenik, pilotuen fasea atzeratuko egingo da hauteskundeak direla eta. Aztertzen ari dira zer doikuntza egin daitekeen lan-planearan fase horren atzerapenak berekin ekar ez dezan gainerako faseak atzeratu behar izatea. Hasiak dira pilotuetan ikasteko eta ezartzeko erabili ahal izango den programa bat prestatzen.

Deskarguari buruzko oharra:

Konpromiso honen elementu positiboak azpimarratu dira: eragin handia eduki lezake eta etikaren eta integritatearen arloko kontzeptu abstraktuak hizkera errazean hedatzeko aukera ematen du.

[ESTEKA: MUGARRIEN ETA SORTUTAKO DOKUMENTUEN AURRERAPENA](#)

2. EKARPENAK ETA IRITZIAK

Konpromisoen elementu komunei edo plan osoari buruzko kezka eta gogoeta batzuk azaldu dira:

Proiektu pilotuak direla eta, adierazi da garrantzitsua dela itxaropenak ongi kudeatzea. Gainera, erakunde batzuk buruzagi izan daitezke pilotu batean baino gehiagotan (Bilboko Udala, esaterako); beraz, komunikazio ona ezartzeaz gainera, pilotuaren faseak, epeak eta abar ere ongi doitu behar dira, inoiz aplikatu ahal izango bada. Pilotuen xedea ereduaren funtsezko elementuak egiaztatzea da; ez dute zertan egiaztatu eredu osoa, kontuan eduki behar baita proiektuek ezin dutela iraun urtebete baino gehiago.

Planaren eta konpromisoen produktuen / emaitzen berri emateaz denaz bezainbatean, kezka agertu da azken produktuak plazaratzeko eta herritarrei helarazteko moduz. Labur esateko, kideak arduratuta daude zer egin den nola azalduko den eta lortzen diren emaitzen berri nola emango den argitu ezinik. Gainera, OGPren Plana urrunekotzat eta eskuraezintzat jotzen da oraindik, eta ondorioz baliteke herritarren parte hartzeko gogoia moteltezea, ezjakintasunagatik. Ezinbestekoa da modu errazean komunikatzea eta parte hartzearen balioa eta onura

goraipatzea (ikuspegi praktikoa, OGP aukera ederra izan daiteke herritarrek beren ekarpenen eta ideien berri emateko erakundeei). Kezka hau (herritarrek planaren berri ez jakitea) asko dute; komunikazio-plana lantzen ari dira, baina hauteskondeek erakunde-komunikazioa eragozten dute. Nolanahi ere, komunikazio-planaren ardatzean planaren “entregagarriak” egongo dira (bestela, emango du “etorkizun” diren gauzak azaltzen ari garela, herritarren onura ahaztuta).

Planaren ebaluazioa dela eta, galdetu da ea OGP – IRM taldeak kontuan edukiko duen bere balorazioan planaren erakundeartekotasuna, batez ere konplexutasunari dagokionez (erakundeen arteko adostasunerako epealdiak, baterako esparruak sortzea, hauteskondeak eta abar). Uste dute beharrezkoa gerta litekeela planaren iraupena bi urte baino luzeagoa izatea. Gainera, aipatu da beharbada konplexutasun-elementuak gehitzen ari direla (erakundeartekotasuna zaintzeko, esaterako, egiaztapen-bilkurak hiru herrialdeetan) eta gero ez direla ahalegintzat onesten. Horren ildotik, erantzuna izan da ebaluazio-taldeari ongi azaldu behar zaiola zein konplexua den jardutea hiru herrialdeetan eta tamaina askotako udalerrietan, eta erakundeartekotasunaren berezko balioa hainbat modutara saldu behar dela (hazia lurralde guztietan ereitea, denen arteko proiektua izatea eta abar).

3. INFORMAZIOA

Aurten **OGPren Global Summit bilera Ottawan** (Kanada) egingo da; hiru gai edukiko ditu ardatz: parte-hartzea, inklusioa eta eragina. Aurreko edizioetan gizarte zibileko entitateek parte hartzea sustatu izan da laguntza ekonomikoen bidez (izan ere, Innobasquek 2018an eskatu zuen eta Foro Erregularreko beste kide bati laga zion –Eneko Agirre–). Aurtengoan, baina, laguntzak murriztu dira. EAEko erakundeetatik Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foro Aldundiak adierazi dute joango direla. Innobasquek diru-laguntza eskatu du joateko. Gainera, UCGL sarea bileran izango da (GFA kidea da), eta OGP Euskadiz ere hitz egingo da.

Proposatu da aztertzea zer toki gobernurekin bildu beharko genukeen plana sendotzeko eta geure agenda prestatzeko bilerarako. Horren ildotik, adierazi da bilerak egingo direla Eskoziarekin eta interesgarriak direla Estonia (oso aurreratuta daude gobernu irekiaren arloko politiketan), Georgia (blockchain gobernu irekian aplikatuta) eta Madril. Bilera horretan baliozko harremanak ezarri beharko lirakeke tokiko programako beste kide batzuekin.

Gainera, Foro Erregularrari adierazi zaio plana hainbat forotan aurkeztu dela eta harrera oso ona izan duela.

Aurkezpenak eta Global Summit bileran parte hartzea direla eta, aipatu da ingelesezko dokumentuen gabezia (gaur gaurkoz plana bera baino ez dago ingelesez) eragozpena izan daitekeela egin den lanaren berri zabaltzeko. Egiteke dago oraindik itzultzeko moduko konpromisoen edukien analisia (mugarriak – entregagarriak, planaren aurrerapena...). Idazkaritza teknikoak Irekia-ko komunikazio-arduradunarekin bilduko da horretaz hitz egiteko.

4. HURRENGO URRATSAK

Honako hauen berri eman zaie Foro Erregularreko kideei:

- Foroaren bilerak hiru hilean behin egiteko asmoa dago; nolana ere, planaren aurrerapenaren inguruko gaiez jardun nahi dutenek idazkaritza teknikoarekin hitz egin dezakete.
- Talde sustatzaileak erabaki du hedapenaren fase honetan hilean koordinazio-bilera bat egitea.
- IRM ebaluazioa jasotakoan posta elektronikoz bidaliko zaie txostena kideei.
- Foru eta udal hauteskundeen ondoren bilerak egingo dira kargudun berriekin konpromisoen hedapena behar den bezala egiten dela bermatzeko.